

GURE PROIEKTUAK




GURE DESIRAK PROIEKTATZEN DITUGU (Ikasleak)

Aldaketa esanguratsuak egiteko, askotan beharrezkoa da proiektu bat prestatzea. Gure ikasleek ere har dezakete parte plangintza horretan, eduki nahiko luketen jolastokiaren edo beren jolastoki idealaren proiektua prestatuz. Baldintza bakarra izango da jolastoki horretan berdintasunean jolastu eta elkarreraginean aritu behar direla mutil eta neska; beste era batera esanda, jolastokia ezin da desberdinkeraren eta diskriminazioaren espazio izan.

HELBURUA

- Jolastoki idealaren proiektua egitea.
- Nire desirak errespetuz eta enpatiaz adieraztea
- Berdintasuna aintzat hartzea jolas-espazioetan egingo diren aldaketak planifikatzeko.
- Nire interesei lotutako ekarpenak egitea.

GARAPENA

Jarduera honekin hasi aurretik, komeni da  ariketa egitea, giro lasaia izateko eta ikasleak horrelako jardueretara ohitzeko.

Jarduera egiten hasi baino lehen, neska-mutilei azalduko diegu zeri buruz hitz egingo dugun. Argi eta garbi adieraziko diegu zer egingo dugun, eta sorkuntzari eta talde-lanari bide emango dion talde-giroa sortuko dugu.

Hasteko, “Un patio diferente” bideoa ikusiko dugu

Halaber, interesgarria litzateke jolastokian eta jolas-eremuetan eduki nahiko luketenari buruz hitz egiteko batzartzea, betiere aintzat hartuta ezagutzen dutenari buruz baino ezingo dutela hitz egin, eta ondorioz, beren aukeren katalogoa mugatuta dagoela. Gainera, ideia batzuk ere eman dakizkieke: bilera-tokiak, mahai-jolasak, solasaldirako guneak, ikasketa-eremua, soka- eta eskalada-jolasak, baratzea, etab.

Bi-hiru kideko talde bakoitzari DIN-A3 orri bat emango zaio, bertan beren aisialdi-espazio ideala marraz dezaten. Kasu honetan, barne hartuko ditu jolastokia eta barrualdeko espazioak.

Hortik abiatuta, erabateko askatasuna izango dute beren marrazkia egiteko. Bi-hiru kideko talde bakoitzari silueta horren barruan jolas-ordurako eduki nahiko lukeena marrazteko eskatuko diogu.

Behin marrazkia bukatuta, talde bakoitzak ahoz azalduko du zer marraztu duen. Arbelean jasoko ditugu ikasleek proposatu dituzten ideiak. Ondoren, bozketa egingo da talde osoak zein ideia nahiago dituen jakiteko.

ESPAZIOAK IKASTETXEKO ESPAZIOAK ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK. BIGARREN HEZKUNTZA

Hori bai, baldintza bakarra bete behar dute proposamen horiek guztiek: espazio hori ez hartzea baloi-jolasek.

Azalpenak eta ideia-bilketa amaitu eta gero, gela ezberdinetako irakasleek komunean jarriko dituzte beren geletan atera diren ideiak, gauzatu daitezkeen eta ikasleen interesekin hobeto bat datozen ideiak hautatzeko. Ideia horiek ahal den neurrian txertatuko dira jolastokiak aldatzeko proiektuan. Gainera, ondorioak ikasleen familiekin parteka daitezke, balizko ekarpenak egin ditzaten.

Jarduera amaitzeko, jolas-espazioen erabilerari eta jolastokia aldatzeko proiektuari buruzko zenbait galdera erantzungo ditugu:

- Zein zailtasun dago jolas-espazioak aldatzeko?
- Zein baliabide dugu, baliabide materialak eta giza baliabideak aintzat hartuta, aldaketa egiteko?
- Nondik has gaitzke, noiz eta noren ardurapean?

IRAUPENA

Jarduera honen iraupena aldakorra da, ikasleen erritmoaren eta proiektuan parte hartuko duten gelen kopuruaren arabera.

BALIABIDEAK

- Un patio diferente: <https://www.youtube.com/watch?v=tT4YlssFU7Q>

GEHIAGO JAKITEKO:

- Patios coeducativos: https://www.youtube.com/watch?v=n_6Jkv3zD2s